Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Josefina Usatorre Lejarzegi

Gernika-Lumo, Bizkaia
(1933-2025)



Aurkibidea

Biografia



1933. urtean jaio zen Gernikako udaletxean bertan, bere aita bertako ordenantza (bulegaria) baitzen, eta azkenengo pisuko etxebizitzan bizi ziren. Aita Markinako Basibar baserrikoa zuen eta ama Santa Luziako Zallobietakoa. Bonbardaketan dena galdu zuten eta 4 urtetatik 7ra arte Eibarren egon zen bizitzen. Herrira bueltatzerakoan, alde batetik bestera ibili ziren: "Barrio Chino"n (Saraspe ingurua), Industria kaleko Kaixaoren etxean eta Estatuko etxeetan. Aita gerran desagertu zen eta ez zuten gehiago bere berririk izan. Bere ama, ostera, beti izan zen dendaria: lehenengo Andra Maria kalean eta gero Ocho de Enero n izan zuen tela-denda, eta beranduago, "Zallobieta" izeneko oinetako-denda. Zazpi urterekin karmeldarren ikastetxean hasi zen eta Mari Carmen Onaindiaren solfeo eta piano eskolak jaso zituen. Beste hainbat gazte bezala "Acción Católica"ko kidea izan zen. 15 urterekin familiako oinetako-dendan hasi zen beharrean; hori dela-eta oso pertsona ezaguna da Gernika-Lumon. Jose Angel Mendiarekin ezkondu zen.

Zintak

GER-054

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-11-18
- **Iraupena**: 83 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Udaletxean jaio zen

- **Erref**: GER-054/004
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:05:25. **Bukatu**: 00:06:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
1933. urtean jaio zen udaletxean bertan, bere aita bertako ordenantza (bulegaria) baitzen. Gernika-Lumo erre zutenean hura ere suntsitu zutenez eta oso txikia zenez, ez du ezer gogoratzen Josefinak.

2. Bonbardaketa ostean, Eibarrera

- **Erref**: GER-054/005
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:06:41. **Bukatu**: 00:07:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gernika-Lumo erre ostean, Eibarrera joan ziren eta Josefina han egon zen 4 urtetatik 7 urtera artean. Lehen jaunartzea egiteko bueltatu zen etxera.

3. Gernika berreraikitzen zeudela, etxe batetik bestera

- **Erref**: GER-054/006
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:07:19. **Bukatu**: 00:11:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Bonbardaketa ostean Eibarrera joan eta 7 urterekin herrira bueltatu zen Josefina. Hiru familia bizi ziren batera Gernikako "Barrio Chino"n (gaur egungo Saraspe plazatik behera doazen kaleak). Gero Kaixao tabernakoek egindako etxe batera joan ziren Industria kalera. Erdiko kalea eraikitzen zeuden sasoi hartan, "Regiones devastadas"ek zuen horrek ardura. Industria kalean hiru urtez egon ostean, Kaltzada egoitza aurreko etxeetara, estatuko etxeetara, joan ziren osaba-izekoei tokatu zitzaien-eta.

4. Mari Karmen Onaindiaren solfeo-eskolak

- **Erref**: GER-054/008
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:12:44. **Bukatu**: 00:14:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Juan Kaltzada kaleko Estatuko etxeetan hiru familia bizi ziren batera. Han ondoan bizi zen Mari Karmen Onaindiak solfeoa eta pianoa irakasten zuen eta bere lehengusina eta bera bertara joaten ziren. Onaindiatarrek okindegia eta zerra zuten bertan.

5. "Maite beti izan zaitez, nere bihotza zabaltzeko..."

- **Erref**: GER-054/010
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:16:25. **Bukatu**: 00:18:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Mari Karmen Onaindiaren solfeo-eskoletara oso gustura joaten ziren, asko gustatzen zitzaien. Abesti asko irakatsi zizkieten, tartean Josefinak kantatzen duen "Maite beti izan zaitez, nere bihotza zabaltzeko...". Hainbat neskatila joaten ziren bertara.

Transkripzioa
- Joaten giñen, pozik joaten giñen, asko gusteten jakun. Bai, asko.
- Baia zer ikesten zenduen ba?
- Ba Mari Karmenegaz ba "solfeo do los solfeos" egoten zan orduen. Ta zelan parte batien, bai. Ta gero zerak, Mari Karmenek, holan kantziñoak eta beren letriegaz ta holan, beren pentsamentuaz eitten oskun eta baten ein oskun:
"Maite beti izan zaitez neure bixotza zabaltzeko,
Maite beti izan zaitez neure poza siñesteko.
Zuk badakizu neure bihotza antziñetik zuria dana,
zu ikusixegaz alaituten naz biok batera alkartzeko.
Agur maite, agur agur, agur Maite gomutatzen zaitut".

Holantxik holako kantziñoak eitten oskuzen eta gu pozik beti beregaz, beragaz kantetako eta holan.

-Ta kantziño gehixau dekozuz akorduen holakoak?
- Ba ez dait ba! Ez jatez /etxatez/ akordeko igoal. Badakittez e!
- Euskeraz kantetan zenduen beti edo erderaz be bai?
- Berari asko gustetan jakon euskerie eta asko jakin eban harek euskeraz e! Gero ingles ikesten be hasi zen joateko gero hara Mejikora. Aunke Mejikon be erderaz be eitten dabe, baia inglesien be hasi zen ikesten, holan akademixe batera-edo, berton Gerniken. Ta pozik ibiltzen giñen.
- Ta nortzuk joaten ziñien, nungo jentie-edo ,hara?
- Mari Karmenegañe? Ba Uguzne ta ni ta gero Pili Kalzada, Erdiko kalien euki eben dendie, ultramariñodune. Zelan esaten otsien hari, Jose Angel, izena? "Surtidor", "Surtidor" esaten otsien, "Surtido bilbaíno", bai.

6. Batxilergoko ikasketak utzi behar lan egiteko

- **Erref**: GER-054/014
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:20:42. **Bukatu**: 00:22:35

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Zazpi urtetatik 14 urtera arte karmeldarren ikastetxean egon zen, "cultura general" ikasiz. Beste lagun batekaz batxilergoa ikastea erabaki eta horrako sarbidea lortu zuen. Lehen ikasturtearen ostean utzi egin bejhar izan zuen amari dendan laguntzeko. Maistra izatea amesa izan zuen. Zazpi urterekin Merzeden egin zuen lehen jaunartzea. Egun handia izan zen.

7. Izen euskaldunak galarazi

- **Erref**: GER-054/016
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:22:50. **Bukatu**: 00:24:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Miren izena zuen lagun bati mojak bere izenarekin burla egiten zion. Galarazita zeuden euskara eta zelan ez, baita euskarazko izenak ere. Bere lehengusiña Uguzne zen eta "María Bautista" deitzen zioten; Maitederri "María del Amor hermoso"...

8. Zallobieta zapata-denda

- **Erref**: GER-054/017
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:24:24. **Bukatu**: 00:26:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Bere amak Ocho de Enero kalean oihal-denda zuen, baina gero zapata-denda jarri zuen. Josefina 15 urtegaz hasi zen bertan lanean eta bertan egon zen erretiratu arte. Mota guztietako oinetakoak zituzten. Herrian zeuden beste zapata-dendak aipatzen ditu.

9. Zapata-konpontzaileak

- **Erref**: GER-054/018
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:26:57. **Bukatu**: 00:28:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Josefinak Zallobieta zapata-denda zuen, baina beraiek ez zuten konpontzen. Gernika-Lumon zeuden zapata-konpontzaileak zeintzuk ziren azaltzen du: Musatadi anaiak, "Pitxin", Diomedes...

10. Zapata-dendako jeneroa

- **Erref**: GER-054/019
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:28:56. **Bukatu**: 00:31:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Zallobieta zapata-dendan Iruñeko Lanpreabe lantegitik ekarritako abarkak saltzen zituzten. Azkoitia aldeko abarketak ere saltzen ziren. Baserritarrek abarkak eta bota mota batzuk erosten zituzten. Bota horiek lantegietako beharginek ere erosten zituzten. Bere amak eta izekok lehenago Andra Mari kalean izan zuten denda.

11. Erdaraz ez jakitearen anekdota

- **Erref**: GER-054/021
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:31:22. **Bukatu**: 00:32:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Bar Azuleko sukaldean lan egiten zuen gizon batek ez zekien ondo gaztelaniaz. Hari gertatutako istorioa kontatzen du: ahalegindu ahalegindu zen behintzat erdaraz egiten. Ez ziren ohikoak horrelakoak, baina gizon hura nagusia zen.

12. Oinetako-modak

- **Erref**: GER-054/023
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:32:58. **Bukatu**: 00:34:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Mutilek zapata arruntak erabiltzen zituzten. Neskek takoiak beti erabili dituzte, beran Zallobieta zapata-dendan hasi zenean ere. Plataformadunak eta zuekodunak berak 16-17 urte zituenean hasi ziren saltzen.

13. Orrazkera-modak

- **Erref**: GER-054/024
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:34:42. **Bukatu**: 00:35:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:
Ileak tupearekin orratzen ziren eta ile gutxi zutenek barrutik ilea sartzen zuten. Josefinak ile asko zuen eta ile-apaindegian "entresakatu" egiten zieten. Permanentea urtean behin egiten zuten, Aste Santuetarako-edo, eguraldia hobetzen zenerako.

14. Janzkerak

- **Erref**: GER-054/025
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:35:42. **Bukatu**: 00:36:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Martian (martxoan) eguraldi onak hasterakoan janzkera ere aldatzen zuten: galtzerdi txikiak jantzi, mutikoek praka laburrak, neskek gona tolesdunak... Jostunak etxez etxe joaten ziren eta konponketa asko egiten zitzaizkien: norbera hazten zen heinean barrenak luzatuz, 3-4 urtez arropa berdina jantziz.

15. Oihalak erosi behar arropak egiteko

- **Erref**: GER-054/026
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:36:42. **Bukatu**: 00:37:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Dendetan oihalak erosten ziren, arropak eginda ez baitziren erosten. Adela Garteiz, Txankan, Bareño, Orbe, Ortuzar... dendak zeuden. Jostun asko zeuden orduan.

16. Gurasoen ezkutuan makillatzen ziren

- **Erref**: GER-054/029
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:39:27. **Bukatu**: 00:41:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea

Laburpena:
Gehienetan eziren makillatzen, baina ezpainak bai margotzen zituzten. Betiere gurasoen ezkutuan egiten zuten, etxeko portalean bertan. Ohikoak ez ziren gauzei "Salido sel cascarón" esaten ei zitzaien. Atzoskolak portalean kuadrilla batuta pintatzen zituzten.

Transkripzioa
- Makilleu-eta hori eitten ziñien?
- Keba!
- Ezpanak bez?
- Ezpanak bai. Baia aman eurrien ta holan ez. Ezkututuen, ezkutuen, ba ezkutuen ze gure ez amak-eta ikusterik. Urteten gendunien kalera eta holan, portalan atzien edo atien atzien edo holantxik eitten gendun.
- Baia txarto ikusitte egon zan?
- Bai, ez jaken /etxaken/ gustetan amari-ta pinttetie eta holan. Keba! Batzuk eitten zien bai.
- Baia ze fama txarra emoten otson neskieri edo ze?
- Bai, baia. Zelan esaten da? "De salido del" erderaz. Oin ez jat /etxat/ akordeko, "salido de lo normal" beste berba bat esaten zan lehen. "Salido del cascarón, salido del cascaron" bai , bai esaten zan erderaz. Igual.
- Eta atzazkolak-eta be margoztuko zenduezan.
- Bai, baia. Jesarri eitten giñen portalien igual koadrilletxue, Blanca Salegi be izena zan koadrillakoa, hil zana Blanca Salegi, Maite bat egon zan hor, izena Jesus! Ointxe esan dotsut izena ta, dependienta egon zan Erdiko Kalien, ez jan /etxat/ akordetan oin. Portalien konponduten ta imintten politto ta pinttetan gero, danak batera bai.

17. Prakarik janztea eta tabernara sartzea pentsatu ere ez

- **Erref**: GER-054/030
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:41:21. **Bukatu**: 00:42:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Prakak ezkondu ostean jantzi zituen lehenengo bider. Tabernetara ere ez ziren sartzen, nahiz eta mutil-lagunak esan.

18. 'Acción Católica'

- **Erref**: GER-054/033
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:44:30. **Bukatu**: 00:45:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Acción Católicakoa zen Josefina; bere senarra, ostera, JOACekoa (Juventid Obrera Católica). Acción Católicakoek don Jesus Jauregi

abadeagaz egiten zituzten batzarrak astero. Taldekideek egiten zutena azaltzen du.

19. Bekatuen beldur ezta musurik ere

- **Erref**: GER-054/036
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:46:50. **Bukatu**: 00:48:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Acción Católicakoentzat dantza egitea bekatua zen. Gero egindakoak konfesatzean kontatu behar izaten zituzten, astero konfesatzen ziren. Penitentziak zelakoak ziren azaltzen du. Mutil-lagunari eskutik helduta joaterakoan norbait ikusiz gero, eskua askatu egiten zuten. Ezkondu aurretik musurik ere zioten eman elkarri. Bekatu mortala harreman sexualak izatea zen.

20. Prozesioak

- **Erref**: GER-054/040
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:52:09. **Bukatu**: 00:54:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:
Prozesioak Dolorosa egunean (Aste Santu aurreko barikua), Bariku eta Eguen Santu egunetan egon ziren. Elizatik irten eta hainbat kaletik pasatzen zen: Erdiko kalea, Don Tello, Ocho de Enero... Bariku Santu egunean, goizez, Errenteria auzotik gurutzeak eramaten zituzten Lumorantz.

21. "Jesukristori kendu ezkero" abestia

- **Erref**: GER-054/042
- **Iraupena**: 0:00:26. **Hasi**: 00:54:55. **Bukatu**: 00:55:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:
"Jesukristori kendu ezkero" abestia kantatzen du bere senarragaz batera.

Transkripzioa
"Jesukristori kendu ezkero
pekatuagaz bizitza,
bardin ez badot negar egiten
harrizkua da bihotza.
Guztiok lagun abestu daigu

beren penazko heriotza
beren penazko heriotza".

22. Elizako abesbatza

- **Erref**: GER-054/044
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:55:28. **Bukatu**: 00:56:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
María Amada Anzorandiak organoa joz elizako abesbatzarekin Ama Birjinaren kanta asko kantatzen zituzten. Jose Antonio Aranak zuzentzen zuen herriko abesbatza.

23. San Roketako abestia

- **Erref**: GER-054/046
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:57:14. **Bukatu**: 00:58:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
San Roketako erdarazko abestia kantatzen du.

24. Kandelerio Eguneko abestia eta ohiturak

- **Erref**: GER-054/047
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:58:15. **Bukatu**: 00:58:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Kandelerio Egunean kandelak bedeinkatzeaz gain abestu ere egiten zuten. Abestia kantatzen du Josefinak.

25. Banda militarrak; Pasealekua bi zatitan

- **Erref**: GER-054/052
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 01:01:15. **Bukatu**: 01:02:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Pasealekuan musika egoten zen jaietan. Banda militarrak etortzen ziren

kanpotik. Pasealekuko eskumako aldean jende dotoreagoa egoten zen; ezkerraldean, gainerakoan.

26. Lehengusinak gelakide bati esandako gaiztakeria

- **Erref**: GER-054/056
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 01:03:31. **Bukatu**: 01:05:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Karmeldarren ikastetxean egunero eguneko santua irakurtzen zuten. Egun batean klaseko lagun bat, Ana María Galán (Pasealekuko eskolako don mauro Galán maisuaren alaba), gona motz batekin etorri zen eta Josefinaren lehengusinak egoeraz eta santuaren egunaz aprobetxatuta txistea egin zuen. Txirene (bromazale) hutsa ei zen lehengusina hori.

27. Xaboia etxean egin eta eskuz garbitu behar

- **Erref**: GER-054/060
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 01:08:38. **Bukatu**: 01:10:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Etxean beti ezagutu du argia, baina ez askorik. Arropak aste bitan aldatzen zituzten, eguen eta domeketan. Beraiek etxean garbitzen zituzten arropak, baina kalean bazeuden garbitokiak. Xaboia etxean egiten zuten zeboagaz eta olioagaz.

28. Oztopoak oztopo familia aurrera

- **Erref**: GER-054/061
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 01:10:42. **Bukatu**: 01:11:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:
Bere amak 8 urtegaz eskumuturra ("eskuturre") apurtu zuen eta medikuak nahi barik zain bat ebaki zion; hala ere, oso ondo konpondu zen nahiz eta senarrik ez izan eta familia berak bakarrik atera aurrera.

29. Aita desagertuaren zantzurik barik

- **Erref**: GER-054/063
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 01:12:48. **Bukatu**: 01:14:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Aita desagertu egin zen eta sekula ez zuten bere berririk izan. Batetik eta bestetik bere berri jasotzen zuten, baina ez ezer fidagarririk.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-08

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com